

AKITANIA-BERRIA EUSKADI NAFARROA EUROESKUALDEA X-ETIK ATERATZEN DA *PRENTSA OHARRA*

Hendaian, 2025eko otsailaren 28an. - Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea (NAEN) Xtik erretiratu da bere misio eta balioekin bat datorren komunikazioa bultzatzeko.

Komunikazio arduratsuen aldeko erabakia

Urte batzuk daramatza Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak (NAEN) hiru lurraldeen arteko mugazgaindiko lankidetzak indartzen eta bere bazkideei eta herritarrei informazio ahal bezain argia eta eskuragarria ematen.

Illo horretan, inklusio eta gardentasun balioak errespetatzen dituzten elkarriketa eta trukeespazioei lehentasuna eman behar zaie. X plataformaren azkenaldiko bilakaerak kezka handiak sortzen ditu edukien moderazioari, egiaztatu gabeko informazioaren hedapenari eta algoritmoen kontrolari dagokienez. Hori dela eta, bere konpromisoekin koherente izateko asmoz, Euroeskualdeak erabaki du X-ko jarduerak bertan behera uztea eta esparru profesionalagoa eta seguruagoa eskaintzen duten plataformetan duen presentzia areagotzea.

Truke-espazio egokituagoak

Hemendik aurrera, Euroeskualdearen berriak Instagram, Facebook eta LinkedIn kontuetan aurki ditzakezue, baita bere webgunean ere (<https://www.euroregion-naen.eu/>). Erabaki honek, Euroeskualdearen aktore guztiekin duen elkarriketa hobetzeko helburu handiago baten barruan kokatzen da, euren errealitateetara eta itxaropenetara hurbilduz.

Istorioak aurrera jarraitzen du, baina beste horizonte digital batzuen pean.

EDOZEIN KONTAKTU ETA/EDO KONTSULTARAKO

Marie Heguy-Urain

+ 33 6 23 15 95 95 / marie.heguy-urain@euroregion-naen.eu